



Zumaia Udalak

UROLA ITSASADARRA BABESTEKO ETA MANTENTZEKO PLAN BEREZIA

2014ko martxoa

A. DOKUMENTUA MEMORIA - I. LIBURUKIA-



mur

MIRUA
21

**Patxi de Assas
Yagüe**

I. LIBURUKIA

A.1 DOKUMENTUA

MEMORIA INFORMATIBO ETA ZURIGARRIA

A.2 DOKUMENTUA

DIAGNOSTIKOA

A.3 DOKUMENTUA

PLAN BEREZIAREN HELBURUAK ETA ANTOLAKETA PROPOSAMENAREN OINARRIAK

II. LIBURUKIA

A.4 DOKUMENTUA

EKINTZA PLANA

III. LIBURUKIA

A.5 DOKUMENTUA

PARTAIDETZA PLANA

2014ko martxoa

(2013ko azaroan eguneratua,
Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzaren 2013ko urriaren 28ko Erabakiaren ondorioz)

Zuzendaritza teknikoa:

Zumaiako Udala

Lantaldearen zuzendaritza eta koordinazioa:

Ekolur Ingurumen Aholkularitza, SLL.

Lantaldea:

Ekolur Ingurumen Aholkularitza, SLL.

Pedro Areta Morondo - Biologoa

Tomas Aranburu Calafel – Nekazaritzako Ingeniari Teknikoa

Nerea Egia Larrinaga – Ingurumen Zientzietan Lizentziatua

MMEJ arkitektura - SLP

Mikel Azkona Uribe - Arkitektoa

Mikel Larratxe Berazadi - Arkitektoa

Javier Puldain Huarte – Arkitektoa

Mirua 21

Itziar Eizagirre Irureta - Abokatua

Patxi de Assas Yagüe- Abokatua

A.1 DOKUMENTUA

MEMORIA INFORMATIBO ETA ZURIGARRIA

AURKIBIDEA

1. Kapitulua	LANAREN AGINDUA ETA ERREDAKZIO TALDEA	1
2. Kapitulua	MEMORIA INFORMATIBO ETA ZURIGARRIA	2
2.1.	PLAN BEREZIAREN HELBURUAK	2
2.2.	JARDUKETA ESPARRUA	3
2.3.	PLAN BEREZIAREN IZAPIDETZEA	4
2.4.	INGURUMENAREN GAINEKO ERAGINAREN EBALUAZIO ESTRATEGIKOA EGITEKO PROZEDURA	5
2.5.	HERRITARREN PARTAIDETZA	6
2.6.	PLAN BEREZIAREN DOKUMENTAZIOA	7
2.7.	PLAN BEREZIA FORMULATZEAREN EGOKITASUNA ETA BIDEZKOTASUNA	7
2.8.	ESPARRU JURIDIKOA ETA ESKUMENAK	8
I ERANSKINA:	INGURUMEN ADMINISTRAZIOAREN ZUZENDARITZAREN ERABAKIA	10

TAULEN ZERRENDA

1.Taula	Urolaren Itsasadarra Babesteko eta Mantentzeko Plan Bereziaren antolaketa esparruaren udalerrrikako banaketa.
2.Taula	Plan Bereziaren aplikazio-eremua ezaugarritzen duten oinarrizko parametroak.
3.Taula	Plan Berezia egitearen eta izapidetzearen laburpen-koadroa.

1. Kapitula LANAREN AGINDUA ETA ERREDAKZIO TALDEA

Urolaren Itsasadarra Babesteko eta Mantentzeko Plan Berezi hau Zumaiaiko Udalaren aginduz egin da.

2012ko martxoaren 21eko 191/2012 Alkatetzaren Dekretuaren bidez EKOLUR Ingurumen Aholkularitza S.L.L.-ri eman zitzaion Plan Berezia idazteko laguntza eta aholkularitza zerbitzuaren kontratua, 2012ko apirilaren 12an formalizatu zena (2011IKIE0007 kodea).

Erredakzio taldea, EKOLUR enpresak koordinaturikoa, honako espezialista hauek osatzen dute:

Ekolur Ingurumen Aholkularitza

Pedro Areta Morondo - Biologoa

Tomas Aranburu Calafel – Nekazaritzako Ingeniari Teknikoa

Nerea Egia Larrinaga – Ingurumen Zientzietan Lizentziatua

Ana Felipe Díaz – Ingurumen Zientzietan Lizentziatua eta Nekazaritza Ingeniari Teknikoa.

Informazio Geografikoen Sistemetako eta Teledetekzioko Masterra.

mmej arkitektura - Mikel Mikel Javier arkitektura SLP

Mikel Azkona Uribe - Arkitektoa

Mikel Larratxe Berazadi - Arkitektoa

Javier Puldain Huarte – Arkitektoa

Mirua 21

Itziar Eizagirre Irureta - Abokatua

Patxi de Assas Yagüe- Abokatua

EKOLURreko teknikariek sarrerako atalak, plangintza esparruaren analisisa eta inbentarioa, ingurune fisikoaren analisisa eta inbentarioa, jabego erregimena, erabilerak eta jarduerak, Planaren helburuak, AMIA analisisa eta esparruaren zonakatze xehatua egin dituzte, Ekintza Planean eremu ezberdinetarako proposamenak formulatzeaz gain. Orobat, dokumentuan zehar agertzen diren planoetako informazio georreferentziatua ere landu dute.

MMEJko arkitekto taldea ondareari buruzko kapituluaz arduratu da, paisaiaren zein azpiegituren inguruko kapituluetan, bai eta planoen diseinuan ere, laguntzeaz gainera.

Patxi de Assas abokatua esparru juridikoaz, administrazioen arteko eskumenen banaketaren azterketaz, hirigintza arauetaz eta egikaritza antolaketa eta kudeaketa arauen azterketaz arduratu da, erredakzio taldeari, jarduketara proposamenen bideragarritasunaren gainean, aholku ematearekin batera.

Itziar Eizagirik, Mirua 21 enpresakoak, herritarren partaidetza prozesua lantzearen eta dinamizatzearen kargu hartu du, zeina dokumentua idazten zen bitartean garatu baita.

2. Kapitula MEMORIA INFORMATIBO ETA ZURIGARRIA

2.1. PLAN BEREZIAREN HELBURUAK

Plan Bereziaren idazketa lanak kontratatzeko lehiaketa zuzendu duen baldintza teknikoen Agiriak honako helburu hauek ezarri ditu:

- Natur baliabideak kontserbatu, hobetu eta berreskuratu.
- Estuarioaren erregimen hidrologiko naturala eta haren dinamika mantendu eta bermatu, haren birsorkuntza sustatuz.
- Sistema barruko habitatak eta flora zein fauna populazioak aktiboki kontserbatu eta hoberen ordezkaturakoak babestu.
- Uren kalitatea bermatu.
- Flora aloktono inbaditzailea erauzi.
- Aisialdirako erabilerak eta hiri-presioak kontrolatu.

Plan Bereziaren idazketa prozesuan zehar eta antolaturiko eremuaren egungo egoeraren diagnostikoa eta azterketa egin ondoren, komenigarritzat jo da, Plan Bereziaren Zuzendaritza Teknikoarekin elkarlanean, Planaren helburuak era zehatzago batean birformulatzea. Eta honako hauek dira:

1. Natura elementuekin harremana duten helburuak
 - Europar Batasunerako interesgarriak diren habitatak babestu.
 - Babestutako eremuan funtsezko elementuak diren habitaten azalera handitu (estuarioa, duna sistema, artadia).
 - Andeatutako edota berrezartzeko ahalmen handiko guneetan habitatak berreskuratu.
 - Mehatxatuta dauden landare eta animalia espezieak bizi diren guneak babestu eta hauen berreskuratzea bultzatuko duten gune berriak sortu.
 - Landare eta animalia inbaditzaileak kendu.
2. Estuarioaren erregimen hidrologiko naturalarekin harremana duten helburuak
 - Erregimen hidrologiko naturala mantendu eta bermatu.
 - Uraren kalitatea ziurtatu.
 - Ibilguko zenbait gune lehengoratu, estuarioko erregimen hidrologiko naturala berreskuratzeko.
 - Ur-ertzeko landaredia berreskuratu edota babestu.
3. Baliabide naturalen ustiapenarekin harremana duten helburuak
 - Eremuan dauden jarduerak eta nekazaritzako ustiategiak mantendu, lurraldearen erabilera jasagarria bultzatuz.
 - Lurraren kalitatea zaindu, kutsadura eta higadura prozesuak saihestuz.
 - Zuhaitz-landaredi iraunkorra mantentzeko bokazioa duten lurren azalera handitu.

- Nekazaritzak eta abeltzaintzak sortutako hondakinen kudeaketa ziurtatu.
4. Paisaiaren balioekin harremana duten helburuak
 - Paisaia-hauskortasun eta kalitate handieneko guneak babestu.
 - Proposatutako jarduketak paisaian integra daitezzen bermatu.
 - Elementu bereziak babestu eta balioetsi (kultur edo natura mugarriak).
 - Paisaia andeatzen duten jarduerak gelditu.
 - Andeatutako guneen paisaia hobetu eta berreskuratu.
 5. Kultur ondarearekin harremana duten helburuak
 - Elementu bereziak (kultur mugarriak) kontserbatu eta balioetsi.
 - Katalogatutako elementu arkitektonikoak babestu.
 - Ustezko arkeologia guneak babestu.
 6. Aisialdirako erabileraren eta hiri-presioaren kontrola.
 - Hasierako helburuekin koherentzia duen araudia ezarri.
 - Kirola, turismoa eta aisialdiarekin harremana duten jarduerak zuzendu, eremuko elementu naturaletan sor daitezkeen eragin negatiboak saihesteko.
 - Bizilagunen paisaiarekiko irisgarritasuna ziurtatu, babestu beharreko natur balioetan inpaktua sortzen ez den neurrian.
 7. Ingurumen-informazioaren zabalkundearekin eta sentsibilizazioarekin harremana duten helburuak
 - Bizilagunen partaidetza txertatu eremuaren babestean, kudeaketan eta antolaketan.
 - Eremuaren babestean, borondatezko jardueretan, ikasleen sentsibilizazioan, eta abarretan diharduten taldeei laguntza eman.
 - Populazioa, oro har, eta, bereziki, nekazaritzako ustiatuegien jabeak sentsibilizatu inguruko ondasun naturalen inguruan.

2.2. JARDUKETA ESPARRUA

“Urolaren Itsasadarra Babesteko eta Mantentzeko Plan Berezi” honek 160 ha-ko eremua hartzen du, eta haren mugarritzatzea hasierako onarpen fasean argitara eman zen Kudeaketa Planaren zirriborroan¹ ‘ES2120004 Urola Itsasadarra’ KBE zabaltzeko proposatu zen eremuarekin bat dator; esparrua zer edo zer aldatu da Santixoko inguruan, non proiektuaren xede den eremua handitu baita Santixoko hondartza osoa sartzeko, Getariako udalerriri dagokion zona bat ere hartuz.

Bestalde, Plan Berezia egiteko ezarri den eskala zehaztuagoak zertxobait aldatu du hasierako onarpena jaso zuen dokumentuan proposatu zen KBE zabalduaren zedarritzatzea. Zehatzago esateko, Urolaren

¹Agindua, 2010eko abenduaren 23koa, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailburuarena; honen bidez, hasierako onespina ematea erabaki da biogeografia eskualde atlantikoko hamalau ibai eta estuario Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzeko eta leku horiek zaintzeko neurriak finkatzeko dekretu-zirriborroaren egitasmoari.

Itsasadarra KBE zabaldurako definitu zen mugarritzatzea landa-katastroko lursailerako mugei egokitu zaie eta, gainera, zabaldu egin da Basustako inguruan, Zumaia Arau Subsidiarioetan 'Babes bereziko' gisa sailkaturiko eremu bat gehitzeko helburuz.

Behin Plan Berezia idazten hasita, Eusko Jaurlaritzak 'ES2120004 Urolaren Itsasadarra' KBE izendatzeko Dekretua behin betiko onartu du, 2012ko urriaren 23an; hala ere, diagnostikoaren idazketa bukatu den datarako (2013/06/01) Dekretua ez da oraindik EHAAan argitaratu. 'ES2120004 Urolaren Itsasadarra' KBEren behin betiko onarpenak hasierako fasean proposatu zen eremuaren handiagotzea (155 Ha) baztertu du; hartara, KBE izendaturiko esparruaren zedarritzatzea ia guztiz bat dator 2003. urtean Batasunaren Intereseko Leku (BIL) izendatutako espazioarekin.

Erredakzio taldeak estimatu du ez dagoela pisuzko arrazoirik ukitutako udalek onartutako KBEren mugak gaintzen dituen esparru baten babesa bultzatzea ez dezaten, are gutxiago, Plan Berezi honen helburuak eta 'ES2120004 Urolaren Itsasadarra' KBEren Kudeaketa Planean definitutako helburuekin bat datozenean. Arrazoi horrengatik, Urolaren Itsasadarra Babesteko eta Mantentzeko Plan Bereziaren hasieran definitutako aplikazio-eremua mantendu da.

Hortaz, Plan Bereziaren eraginpeko eremuak 1.603.161 m²-ko (160,3 ha) azalera osoa du, Zumaia, Getaria (2,0 ha, Santixoko ingurunean) eta Zestoako (3,72 ha, Beduako meandroan) udalerrien artean banatzen dena. Hona hemen Plan Bereziaren azaleraren banaketa udalerriko:

UDALERRIA	AZALERA (ha)	AZALERA (%)
Zumaia	154,56	%96,4
Zestoa	3,72	%2,3
Getaria	2,06	%1,3
GUZTIRA	160,32	%100,0

1.Taula Urolaren Itsasadarra Babesteko eta Mantentzeko Plan Bereziaren antolaketa esparruaren udalerriko banaketa.

Jarraian Plan Bereziaren aplikazio-eremua ezaugarritzen duten oinarritzko parametroak laburtu dira:

Azalera (ha)	160
Luzera (km)	7,6
Perimetroa (km)	18,29
Hasierako koordenatuak (Oikia): (X/Y; UTM ED50)	562928,8 / 4792295,3
Amaierako koordenatuak (Santixo): (X/Y; UTM ED50)	561070,7 / 4795015,3
Erdiko koordenatuak: (X/Y; UTM ED50)	561329,2 / 4793342,6
Garaiera maximoa (m)	115,37
Garaiera minimoa (m)	- 2,23
Garaiera ertaina (m)	14,48

2.Taula Plan Bereziaren aplikazio-eremua ezaugarritzen duten oinarritzko parametroak.

2.3. PLAN BEREZIAREN IZAPIDETZEA

Urolaren Itsasadarra Babesteko eta Mantentzeko Plan Bereziaren izapidetzeak ekainaren 30eko, lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legeak ezarritako prozedura hartu behar du kontuan.

Era berean, Zumaia Udalak erabaki du herritarren partaidetza plan bat aurrera eramatea, Plan Berezia egiten den bitartean. Plan Bereziaren idazketa eta izapidetzeak hirigintza-espeditentearen beraren

izapidetzeari, ingurumenaren ebaluazio estrategikoaren prozedurari eta herritarren partaidetza planari dagozkion etapak konbinatuko ditu. Plan Bereziaren izapidetzeak, orokorrean, honako fase hauek jarraituko ditu (laranjaz Plan Berezia egiteari dagozkion faseak eta urdinez herritarren partaidetza planari loturikoak):

1. fasea:
Herritarren partaidetza planaren lehenengo fasea
Plan Bereziaren Hasierako Onarpen dokumentua
2. fasea:
Plan Bereziaren erakusketa publikoa
Erakusketa publiko aldian zehar jasotako alegazioei erantzun ematea
Plan Bereziaren Behin-behineko Onarpen dokumentua
Herritarren partaidetza planaren bigarren fasea
Kostaldearen eta Itsasoaren Jasangarritasunerako Zuzendaritza Orokorraren Txostena eta EAEko Lurralde Antolaketa Batzordearen Txostena eskatzea
3. fasea:
Plana arloko txostenen erabakietara eta EAEko Lurralde Antolaketa Batzordearen txostenera egokitzea.
Herritarren partaidetza planaren hirugarren fasea
Plan Bereziaren Behin betiko Onarpen dokumentua

3.Taula Plan Berezia egitearen eta izapidetzearen laburpen-koadroa.

2.4. INGURUMENAREN GAINEKO ERAGINAREN EBALUAZIO ESTRATEGIKOA EGITEKO PROZEDURA

Ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozeduraren inguruan honako alderdiak azpimarratu behar dira: 28ko 9/2006 Legean, zenbait planek eta programak ingurumenean duten eraginaren ebaluazioari buruzkoan, araututa dago aipatutako prozedura; EAEn, urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duenak, prozedura zehazten du. Azken horrek uztailaren 22ko 183/2003 Dekretua ordeztzen eta indargabetzen du, eta EAEko Ingurugiroa babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren I.A. eranskina aldatzen du, non ezartzen baita ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedurapean jarritako planen eta programen zerrenda.

Plan Bereziaren izapidetzea hasterakoan indarrean zegoen legeriarekin bat etorritz [183/2003 Dekretua], Zumaiaiko Udalak ingurumen organoari [Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza] eskaera luzatu zion, 2012ko uztailaren 9ko sarrera dataz, 'Erreferentzi dokumentua' igortzeko izapidetzea hasi zezan. Eskaerari 'Aldez aurreko kontsulta' dokumentua erantsi zitzaion, Plana idatzi duen taldeak eginikoa. 2012ko irailaren 10ean, ingurumen organoak aipatu 'Erreferentzi dokumentua' bidali zuen, Ingurumen Jasangarritasunari buruzko Txostenaren helmena eta edukiak zehazten zituen.

211/2012 Dekretua indarrean sartu ondoren, Zumaiaiko Udalak Ingurumen eta Lurralde Politika Sailari kontsultatu dio, 2013ko otsailaren 12ko idatziaren bidez, ea planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak zer nolako eragina izan ahal duen Plan Bereziari buruzko espedientearen ingurumen arloko tramitazioan.

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzaren erantzuna, 2013ko urriaren 28koa, honelaxe dio:

“Dokumentazioa berriro aztertuta, egiaztatu da aipatutako Plan Berezia ez dago Euskal Autonomia Erkidegoko ingurugiroa babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren I.A. eranskinean, non ezartzen baita ingurumenaren-ebaluazio estrategikoaren prozedurapean jarritako planen eta programen zerrenda”.

Ingurumen-organoaren erabakia kontuan harturik, bukatutzat jotzen da Ingurumen Ebaluazio Estrategikoaren prozeduraren izapidetzea.

2.5. HERRITARREN PARTAIDETZA

Erredakzio taldean partaidetza prozesuetan aditua den teknikari bat dago, Plan Berriaren idazketa prozesuan zehar egin den Herritarren Partaidetza Planaz arduratu dena.

Partaidetza prozesuaren dinamika eta metodologia udalbatzak berak ezarri ditu, azterketa eremuan aritzen diren eragileak eta Zumaiaiko udalerriaren errealitatea ezagutzen ditu eta.

Partaidetza prozesuaren esparrua, bereziak izan arren, aldi berean elkarren artean konektaturik dauden hiru espaziotan landu da.

Alde batetik, Mahai Teknikoa eratu da, Urolaren Itsasadarrean eskumenak dituzten hainbat administrazioak eta, arloko ezagupena izanik, Plan Bereziaren edukiak hobetzen lagun dezaketen bestelako zenbait elkartek osatzen dutena.

Bestalde, Herritarrek Parte Hartzeko hiru Foro egin dira Planak antolatzen duen eremua banatu den hiru eskualde barrutiren inguruan (1.-Santixo eta Urolaren bokalea, 2.- Artadi-Bedua, 3.- Dornutegi-Oikia).

Halaber, elkarteetan bildurik ez dauden herritarren partaidetza ahalbidetzeko helburuz, lortzen zailena izaten baita, informazioa eskuratzeko eta iradokizunak jasotzeko guneak sortu dira web baliabideen bitartez.

Plan Bereziak hasierako onarpena jaso du Zumaiaiko Udalaren osoko bilkuran (Udalaren 782/2023 Dekretua, 2013ko azaroaren 29koa, 237. GAO n argitaratua, 2013ko abenduaren 13an); hasierako onarpena jaso baino lehen Zestoako eta Getariako udalek bere adostasuna jakinarazi zuten Zumaiaiko Udalak espedientearen izapidetzea aurrera eraman zezan.

Hasierako onarpena jaso ondoren jendaurrean jarri da, hilabete batez (2014ko urtarrilaren 15a arte), eta propio jakinarazi zaie bai erasandako jabeei bai Zestoako eta Getariako udalei.

Bitarte horretan bi alegazio aurkeztu dituzte banakakoek, beste bat elkarte naturalistiko batek eta beste bat Getariako Udalak. Horrez gain, URA Agentziaren txostena eta Kostaldearen eta Itsasoaren Jasangarritasunerako Zuzendaritza Orokorraren txostena jaso dira.

A.5 Partaidetza Plana dokumentuan prozesuaren helburuak, garapena, partaideak, aktiboki parte hartzeko saioen aktak, prozesuaren ebaluaketaren emaitzak eta jendaurrean aurkeztu den espediente urbanistikoari egin zaizkion iradokizunen eta alegazioen erantzun txostena zehazten dira.

2.6. PLAN BEREZIAREN DOKUMENTAZIOA

Babesteko eta Mantentzeko Plan Berezi batek izan beharreko gutxieneko dokumentazioa ekainaren 30eko, lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legeak ezartzen du. Urolaren Itsasadarra Babesteko eta Mantentzeko Plan Berezia honako dokumentu hauek eratzen dute:

- A. Memoria
 - A.1. Memoria informatibo eta zurigarria
 - A.2. Diagnostikoa
 - A.3. Plan Bereziaren helburuak eta antolaketa proposamenaren oinarriak
 - A.4. Ekintza Plana
 - A.5. Partaidetza Plana
- B. Gauzatzearen Antolaketa eta Kudeaketa Jarraibideen Azterlana
- C. Hirigintza Arauak
- D. Dokumentu ekonomikoa
- E. Planoak:
 - Informazio planoak
 - Antolaketa planoak

2.7. PLAN BEREZIA FORMULATZEAREN EGOKITASUNA ETA BIDEZKOTASUNA

Padura gunek, hareatzak, artadi kantauiarrak, ibaiertzak eta Urolaren estuarioa bere osotasunean kontserbaziorako intereseko elementuak dira; Batasunaren intereseko habitaten lagin adierazgarriak dituzte, horietako zenbait EAEn oso urriki ordezkaturakoak; eta betekizun garrantzitsua dute hegaztien migratzean, espezie askori atsedenerako eta elikatzeko lekua ematen diotenez gero. Hainbat azterketek, inbentariok eta lurralde antolamendurako tresnek aitortu dute interes hori, eta, halaxe islatu da Plan Berezi honen Diagnostikoaren atalean garatu den antolatutako eremuan aplikatzekoa den arloko legediaren eta udalaz gaindiko plangintza esparruaren analisisian [A.2. dokumentuko 2.1 *Plangintza Esparrua* atala].

Hartara, balio horien aitormenez, “Urolaren Itsasadarra” eremua, Plan Bereziaren lan-esparruak mugatutako eremua baino azalera zertxobait txikiagoz, Natura 2000 Sarea² lekuak hautatzeko prozesuko alde zuzenaren fasean aukeratu zuten, eta, 2003an, Natura 2000 Sareko Batasunaren Intereseko Lekuen (BIL) zerrendan sartzeko proposatua izan zen, ekainaren 10eko Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Kontseiluaren Akordioaren bitartez. Gaur egun, espazioa Eskualde Biogeografiko Atlantikoa eratzen duten Batasunaren Intereseko Lekuen (BIL) zerrendaren barruan dago, indarrean dagoen 2011ko urtarrilaren 10eko 2011/63/EB Europako Batzordearen erabakiaren arabera.

² Natura 2000 Sarea bioaniztasuna mantentzeko eremuen sare ekologiko europarra da eta haren helburua Europako habitat eta espezie mehatxatuenean epe luzerako biziraupena ziurtatzea da, horrela, gizakien jardueren eragin kaltegarrien ondoriozko bioaniztasunaren galera gelditzen lagunduz. Bioaniztasuna mantentzeko Europar Batasuneko tresna nagusia da.

Aipatu 2011/63/EB Erabaki horri jarraituz eta Habitaten 92/43/EB Zuzentarauak xedatutakoa aplikatuz, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailburuaren 2010eko abenduaren 23ko Aginduaren bidez, hasierako onespena eman zitzaion, beste batzuen artean, Urolaren Itsasadarra Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzeko Kudeaketa Planari, eremua Plan Berezirako definitu denarekin ia bat etorritz, Zumaia eta Zestoa udalerriei dagokien zatian.

Bestalde, Plan bereziaren esparruaren zatirik handiena lurzoru urbanizaezin gisa sailkatuta azaltzen da indarrean dauden Zumaiaiko plangintzarako Arau Subsidiarioetan. Salbuespena honako zona hauek eratzen dute hiri-lurzoru edo lurzoru urbanizagarri izateagatik: Urolaren itsasadarraren estuarioa, N-634 errepideko zubitik ibaiaren bokaleraino doana, hiri-lurzoru gisa sailkatuta eta Garraio eta Komunikazio Sistema Orokorra - 7 Portuko eremu gisa kalifikaturik dagoena.

- AU18 Korta eremuko ibaiertza eta espazio libreak. Hiri-lurzoru finkatu gisa sailkatutako eremua da eta bere kalifikazio orokorra industrial da.
- 4 Xey Sektoreko ibaiertza. Industria erabilerako lurzoru urbanizagarria, S.7 Plan Partzialaren arabera (1993).

Plan Berezia esparruaren zati handi bat 'Babes Bereziko' lurzoru urbanizaezinaren kategoriaren barnean geratzen da, espazio hori babestu eta mantentzeko irizpideekin bat datorrena.

Konpromiso hori jasagarritasunerako Tokiko Ekintza Planean islatu zen ere; Udalak 2006. urtean onartu zuen Plana, Tokiko Agenda 21 Zumaian ezartzeko esparruaren barruan. Ekintza Plan horren lerro estrategikoetako bat "Bioaniztasunaren eta paisaiaren babesa eta hobekuntza eta intereseko espazioen eta elementuen zabalkundea" da (L6), eta haren helburu orokorrak oraingo Plan Berezi hau egiteko ekimenarekin bat datoz.

2.8. ESPARRU JURIDIKOA ETA ESKUMENAK

Plan Berezia idazterako orduan aintzat hartu beharreko gai garrantzitsuetako bat antolatu nahi den esparruan biltzen diren administrazio eskumenena da. Eskumen horietako batzuek Plan Berezia helmena mugatzen dute. Bestalde, ezin dugu ahaztu Zumaiaiko udalerria bera, Getariako eta Zestoako udalerrien adostasunez, bere toki-autonomiaren esparruan, eta zehazkiago hirigintza- eta ingurumen-eskumenen esparruan, ari dela Plan Berezi hau egiten, eta, hortaz, proiektu hau testuinguru horretan kokatzen dela.

Memoria dokumentu sorta honen idazpurueta dagoeneko zehaztu dira azterketa eremuaren gaineko arloko eraginak, eta, argi geratzen da, autonomia- eta oinarritzko legeriatik eratortzen diren tresnetan xedatutakoa eta Plan Berezia proposamenak koordinatzeko ahalegina egin beharko dela. Nolanahi ere, eta Plan honen berezitasunak aintzat hartuta, koordinazioari denbora emateaz gain, arreta jarri beharko dugu beste funtsezko alderdi batzuetan ere.

A.- Babesteko eta Mantentzeko Plan Berezia

Zumaiaiko Udalak ezarritako helburu orokorra ikusirik, Urolaren Itsasadarra Babesteko eta Mantentzeko tresna bat idaztea, alegia, eta 2/2006 legeak eskaintzen dituen aukerak kontuan hartuta, figura juridiko egokia Plan Berezia litzateke. Halaber, Plan Berezi hau ekainaren 30eko, lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 72. artikulua testuinguruan kokatu beharra dago. Artikulu hori Lege beraren 69. artikulua xedatzen duenarekin lotu behar da, Plan Berezia helmena eta edukia zehaztu

ahal izateko. Beraz, ez da Plan Berezi soila, baizik eta hirigintza-leggedian espresuki kontuan hartutako Plan Berezia, berariazko edukia eta helmena dituen, baina lortu nahi diren helburuei doitu eta egokitu beharko zaiena.

B.- Udalerrri bat baino gehiagoren gaineko eragina

Plan Bereziaren ezaugarri garrantzitsuenetako bat jarduketa-eremuak udalerrri bat baino gehiago hartzen dituela da. Esku-hartze eremuaren zatirik handiena Zumaiaiko udalerrrian badago ere, Getaria eta Zestoako udalerrriak ere ukituak dira, puntualki. Hori dela eta, beharrezkoa da ukitutako Udalei prozeduran “esku-hartzea” ematea, nahiz eta, 2/2006 Legearen 92. artikulua babesaren pean, eta hiru udalerriek adostutakoaren arabera, Zumaiaiko Udalak izango duen Plan Berezi hau formulatu eta izapidetzeko ardura, gehien eragindako lurraldea udalerrri horri dagokiola eta.

Ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuaren 13. artikulua ahalbidetu egiten du, dagoeneko, bateragarritze-plan bereziaren figura, xedeek horrela aholkatzen dutenean. Gauzak horrela, Plan Berezia mota horretako planen esparruan kokatu beharko litzateke, hiru udalerrrien arteko akordioaren babesaren pean, lurralde bat baino gehiagori eragiten baitio.

C.- Plan Bereziaren harremana plangintza orokorrekin eta udalez gaindiko plangintzekin.

Plan Berezia izanik, agerikoa da indarrean dagoen plangintza orokorraren mende [Getaria, Zumaia eta Zestoako Hirigintza plangintzarako Arau Subsidiarioak] egon behar duela, hortaz, proiektuak dokumentu egituratzaileek antolatu nahi den lurzoruari buruz egindako zehaztapenak errespetatu beharko dituzte. Dena dela, Plan Bereziak badu, 2/2006 legearen 69.1. artikuluan jasotzen denaren arabera, jarduera eremua definitzea eta halaxe egin du, **Kokapena eta Plan Bereziaren jarduera eremua 1. Planoan** agertzen den moduan.

Plan Berezi hau lehen aipatu Udal eskumenen esparruaren barruan idatzi behar da, ikusmira handinahiaz eta gainontzeko administrazioekin harremanak eta, dagokion kasuan, koordinazio eta elkarlanerako bideak ezartzeko helburu juridikoaz. Udal plangintzarako tresna guztien moduan, Plan Bereziak arloko estatu legeria aplikagarria bete beharko du, bai eta lurralde antolaketaren autonomia-eskumenaren testuinguruan, behin betiko onartu diren lurralde antolaketarako tresnak ere. Erabilera erregimenak dagoeneko estatuko legerietan definitu dena aintzat hartu beharko du (Kostaldee buruzko Legea, Uren Legea, etab.), eta ezingo du egun finkatuta dagoen zona edo zortasun ezberdinetarako eraikuntza erregimena urratu; hala ere, erabilera erregimen horiek osatu ahal izango lituzke, hirigintza eta ingurumen testuinguruan, izaera murriztaileagoa izateagatik edo dagoen erregimena ez urratzeagatik, bateragarriak diren erabilerak definituz.

Horrela bada, dokumentuak hierarkian gorago dauden plangintzen mende dagoen tresna izaera eta udal-autonomiatik eratorritako tresna izaera konbinatu beharko ditu, hori guztia Urolaren itsasadarra babesteko eta mantentzeko funtsezko helburuaz.

I ANEXO:

INGURUMEN ADMINISTRAZIOAREN ERABAKIA (Ingurumen Sailburuordetza. Ingurumen eta Lurralde Politika Saila. Eusko Jaurlaritza). 2013ko urriaren 28koa.

ZUMAIKO UDALAK EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO	
2013 AZO: 11 SARRERA Zkia. 2630	IRTEERA Zkia. 405947
INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA Ingurumen Sailburuordetza Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA DPTO. DE MEDIO AMBIENTE Y POLÍTICA TERRITORIAL	
DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y POLÍTICA TERRITORIAL Viceconsejería de Medio Ambiente Dirección de Administración Ambiental	
ZUMAIKO ALKATE UDALBURUA Foruen Enparantza, z/g 20750 ZUMAIA GIPUZKOA	29 OCT 2013 ALCALDE-PRESIDENTE DEL AYTO. DE ZUMAIA Plaza de los Fueros s/n 20750 ZUMAIA GIPUZKOA

Gaia:

Asunto:

Urola ibaia babesteko eta kontserbatzeko Plan Berezia.

Plan Especial para la protección y conservación de la ría del Urola.

Espdte.: IEEB_ECIA_2012_008

Expdte.: IEEB_ECIA_2012_008

2013ko otsailaren 12ko idatziaren bidez, Zumaia Udalak Ingurumen eta Lurralde Politika Sailari kontsultatu dio ea planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak zer nolako eragina izan ahal duen **Urola ibaia babesteko eta kontserbatzeko Plan Berezia**ri buruzko espedientearen ingurumen arloko tramitazioan.

Mediante escrito de fecha 12 de febrero de 2013, el Ayuntamiento de Zumaia ha consultado al Departamento de Medio Ambiente y Política Territorial sobre la influencia que la entrada en vigor del Decreto 211/2012, de 16 de octubre, por el que se regula el procedimiento de evaluación ambiental de planes y programas, puede suponer en la tramitación ambiental del expediente relativo al **Plan Especial para la protección y conservación de la ría del Urola**.

Dokumentazioa berriro aztertuta, egiaztatu da aipatutako Plan Berezia ez dago Euskal Autonomia Erkidegoko ingurugiroa babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorren I.A. eranskinean, non ezartzen baita ingurumenaren-ebaluazio estrategikoaren prozedurapean jarritako planen eta programen zerrenda.

Analizada de nuevo la documentación, se concluye que el Plan Especial anteriormente citado no está dentro de los supuestos establecidos en el Anexo I A de la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco, donde se establece la lista de planes y programas sometidos al procedimiento de evaluación ambiental estratégica.

Besterik gabe, agur.

Sin otro particular,

Vitoria-Gasteizen, 2013ko urriaren 28an.

En Vitoria-Gasteiz, a 28 de octubre de 2013.

Ingurumen Administrazioaren Zuzendaria
 Directora de Administración Ambiental

[Handwritten signature]



Alejandra Iturrioz Unzueta